



EBAZPENA, 2017ko abenduaren 19koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2017-2018ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaeren Ebazpena egiten duena.

2017ko ekainaren 28ko aginduaren bidez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2017-2018ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

1. ebazpen-proposamena 2017ko abenduaren 11an argitara eman eta jakinarazi ondoren, proposamen onartu duten eskatzaileen beka orokorreari buruzko 1. ebazpena ematen da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi horren lehen ebazpenaren berri ematea 2017-2018ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko ebazpenarekin batera, zerrendatzen dira. Ebazpenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- Hilabete bateko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek prozedura-ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkezteko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 19a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN